

AGERTOKI IRISGARRIAK

“MEJORANDO VITORIA-GASTEIZ HOBETUZ” PROGRAMA



NOR GARA

- Ezgaitasun fisikoren bat izan eta EGINAREN EGINEZ elkartean bildutako pertsonak gara. Aniztasun funtzionala duten pertsonen aukera-berdintasuna lortzea eta inor ez diskriminaturik geratzea da gure helburua.
- Ezgaitasuna duten pertsonak eguneroko bizitzako jarduera guztietan eta modu normalizatuan kontuan hartzea eta barne-biltzea aldarrikatzen dugu.
- Berdintasunaren aldeko aurrerapausoak aldarrikatzen ditugu, eta Administrazioarekin elkarlanean dihardugu zeregin horretan. Erakundeak HERRI ONURA izaera aitortua du (280/1996 Dekretua, abenduaren 3koa).

GURE PROPOSAMENAREN IZENBURUA

- **AGERTOKI IRISGARRIAK.**

ZERTAN DATZA?

- Udal agertokiak eskuratzea edo egokitzea da xedea, arrapala baten bidez ekitaldi publikoetarako irisgarriak izan daitezzen;
- Adibidez, Plaza Berrian dagoen agertokia, edo hainbat jardueretarako kolektibo batzuei eta besteei alokatzen zaizkien agertokiak eta bide publikoan han eta hemen jartzen direnak.

ZERGATIK DA GARRANTZITSUA?

- Xedea da agertokiak pertsona guztientzat irisgarri izatea.
- Ezgaitasun fisikoa edo aniztasun funtzionala duten pertsonak aukera berdinak izatea bermatzen da.
- Gehien-gehienetan, kolektiboko pertsonak ekitaldi publikoetan parte hartu nahi izan dugunean, ezin izan dugu agertokira igo, eta behean geratu behar izan dugu, jardueran partade eta kide genituen talde eragileko beste pertsonengandik aparte. Eskaileretatik beharrean arrapatatik agertokira igotzeak pertsona guztiei ematen die parte hartzeko aukera.
- Herritarren partaidetza indartzen da.

NORENTZAT DA ONURAGARRI?

- Gizarte guztiarentzat.
- Pertsona guztientzat, aukera-berdintasuna eta partaidetza bermatzen den heinean.
- Mugikortasun murriztua duten Gasteizko pertsona guztientzat. Orobat, hiritar guztientzat bizi-kalitatea hobetzeko aurrerapausoa da.